- Ibáñez Loyo continua con el recurso, pese a las conversaciones mantenidas por el Letrado del Ayuntamiento con la parte demandante ante la falta de legitimación pasiva; desde el Ayuntamiento se ha pedido la presencia del Sr. Ibáñez Loyo y se solicitará a Diputación que acredite que el Concejo de Markina no ha sido disuelto a fecha de hoy y por lo tanto existe. La vista está prevista para el día 21 de febrero 2017.

- Biurrarena S. Coop. SE han puesto en contacto los abogados de las dos partes y parece que manifestaron que ellos taparían

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

zuten beraiek estaliko zutela lubakia Udalak materiala jarriz gero.

- Berretin Berdea: erabilera partekatua proposatu zuten, eta alkateak esan du orain dutena dela.

**9.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Alonso zinegotzi jaunak esan du AFAk ez duela diru-laguntzarik ematen Domingo de Sautu kaleko hornidураren laneko ez galtzada-harrietarako ez lauzetarako. Alkateari proiektuaren inguruan galdetu eta lehenengo horrek erantzun dio udal-arkitekto teknikoarekin idazleak eman dizkion datuak aztertzen saiatuko dela eta hortik aurrera, hurrengo ostiralean Batzordera informazioa eraman ahal izango duela uste du.

Eguiluz zinegotzi jaunak uste du komenigarria litzatekeela obretarako behar den materiala utzi ahal izateko lursail bat izatea.

Sautu zinegotzi jaunak esan du Gorbeialdeko Koadrilako arkitekto edo aparejadore bat kaleratu eta kalte-ordainak ordaindu behar izan zaizkiolako zurrumurrua entzun duela; alkateak esan dio Legutioko Udalak Koadrilari jarraitzeko eskatu ziola eta errekurritu egin duela, eta gaineratu du Koadrilan horrelako kontratuekin kontratatutako pertsona guztiekin gerta daitekeela.

Ondoren, Sautu jaunak galdetu du zerbait jakin duten Hezkuntzatik ikastetxe berriaren inguruan eta URAtik baltsari buruz, eta alkateak erantzun dio hilaren 23an bilera izango duela Hezkuntzarekin lehenengoari buruz eta, baltsa dela-eta beste bilera bat eskatuko du eta gaia udalaren hornidura izango da.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura

el foso si el Ayuntamiento le suministra el material.

- Berretin Berdea: propusieron el uso compartido, y el Alcalde dice que es lo que ya tienen ahora.

**9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Concejal Sr. Alonso comenta que DFA no subvenciona ni adoquín ni baldosa en la obra del abastecimiento de la C/Domingo de Sautu. Pregunta al Alcalde sobre el proyecto, contestándole éste que intentará ver con el Arquitecto técnico municipal los datos que le ha pasado el redactor y a partir de ahí, piensa que podrá acudir el próximo vienes a la Comisión para informar.

El Concejal Sr. Eguiluz piensa que sería conveniente disponer de una parcela en la que pudieran ir dejando el material preciso para las obras.

El Concejal Sr. Sautu comenta que ha oído un rumor sobre el despido de una Arquitecto o Aparejadora de la Cuadrilla de Gorbeialdea y le han tenido que indemnizar; el Alcalde informa que el Ayuntamiento de Legutio instó a la Cuadrilla para que no continuara y ha recurrido, y añade que eso puede pasar con todas las personas contratadas con ese tipo de contratos en la Cuadrilla.

A continuación el Sr. Sautu pregunta si se sabe algo de Educación obre el proyecto del nuevo centro y de URA sobre la balsa, contestándole el Alcalde que tiene una reunión el día 23 de este mes en Educación para lo 1º y respecto a la balsa va a solicitar nuevamente otra reunión y el tema será el abastecimiento del municipio.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio

amaitutzat eman du 20:30ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

por finalizada la reunión, siendo las 20:30 horas de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

**ANEXO ACTA PLENO 09.02.2017**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

## ZUIAKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN BARNE ERREGIMENEKO ARAUDIA

### 1. APLIKAZIO-EREMUA

### DEFINIZIOA ETA HELBURUAK

Eguneko arretarako landa zentroak integrazio, prebentzio, laguntza eta komunitate izaerako zentroak dira. Egunean zehar zenbait zerbitzu ematen dituzte, eguneroko bizitzako jardueretan eta aisiako eta astialdiko laguntza eskaintzen dute autonomia maila aldagarria duten adineko pertsonentzat, familia egitura edo laguntza informaleko sarea daukatenak. Zerbitzu horiei esker, etxean bizitzen jarraitu ahal dute, bizi kalitate onargarriarekin.

Hauexek dira zentroaren helburu nagusiak:

1. Adineko pertsonei beren ingurune sozialean gelditzea ahalbideratzea, behar duten zaintza komunitatean bertan eskainiz.
2. Adineko pertsonen autonomia, integrazioa eta gizartean parte hartzea mantentzea sustatzea. Horretarako, prebentzio izaerako programak bultzatzen dira, gaitasun funtzional eta sozialak eta jarduera psikikoa mantentzeko prestazioak eta zaintza arinak ematen dira, aisialdia erabiliz eta gizarte, kirol eta bestelako jarduerak garatuz, eta erabiltzaileek zentroen funtzionamenduan parte hartzea bultzatzen da.
3. Adineko pertsonen bizikidetzarako espazioa izatea, kolektibo honen premiak detektatzeko balio duena, arreta zerbitzu intentsuagoen eskaera atzeratuz.
4. Adineko pertsonen arretan gizarte osoaren erantzukizuna bultzatzea, laguntza sareei laguntza emanez, beraiek hartzen dituzten erantzukizunetatik zati batez askatuz eta horrela bakarrik bizi diren adineko pertsonei eta beraiek zaintzen dituzten pertsonei lagunduz.

5. Zerbitzu hauek eta beste komunitate zerbitzu batzuk egiten diren biztanle gune txikien arteko komunikazioa ahalbideratzea.

### ZUIAKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA

**Helbidea:** Bigillano kalea, 1 – 01130 Murgia (Araba)
**Harremanetarako**: Telefonoa: 945430375. E-posta: zuiacrad@gmail.com
**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 12:00-18:00
**Eskaerak:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan
**Harremanetarako:** Udaleko Gizarte Langilea
**Edukiera:** 20 plaza erabili daitezke aldi berean.

### 2. ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK.

Azaldutako helburuak betetzeko, zentroak ondoko zerbitzuak dauzka:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

- Estimulazio jarduerak: goizeko eta arratsaldeko ordutegian programatuak (hurrengo puntuan garatuko dira).
- Jantoki zerbitzua.
- Bainu geriatrikoa.
- Ikuztegi zerbitzua.
- Garraio zerbitzua.

Zerbitzuok erabili ahal izateko, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari idatzizko eskaera egin beharko zaio, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gaiaz hartutako ebazpenaren bidez onartu beharko da erabilera.

## 3. JARDUERAK.

Zuiako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren helburu orokorra arreta ematen dien pertsonen gaitasunak mantentzeko edo hobetzeko jarduerak prestatzea eta eskaintzea da. Azken helburua, pertsona horiek beren familia eta gizarte inguruan bizitzen jarraitzea da, ahalik eta denbora luzeenean, bizi kalitate onargarriarekin.

Erabiltzaile bat zentroan sartzen denean, haren egoera psikofisiko eta sozialaren balorazioa egiten da. Balorazio horren emaitzekin bat etorriz, esku hartzeko banako plana egiten da. Plan horretan erabiltzailearentzat proposatutako helburu eta jarduketak azalduko dira. Plan hori erabiltzaileari edota erreferentziako pertsonari azaltzen zaie. Planaren helburua pertsonaren bizi proiektua garatzen laguntzen duten laguntza eta aukerak eskaintzea da, haren gogobetetzea eta ongizatea areagotzeko.

Arreta profesionalen lantalde batek ematen du. Lantalde hori familia langileek eratzen dute, eta arreta egokia bermatzeko moduan banatzen dituzte funtzioak.

Zentroaren dinamika arreta pertsonalaren, gizarte eta hezkuntzako esku hartzearen, eta esku hartze psikosozialaren ingurukoa da batez ere, eta banaka, taldean eta komunitatean esku hartzeko aukerak ematen ditu.

Langile horiek jarduera sorta zabala egitea ahalbideratzen dute, ondoren zehaztutakoak, hain zuzen ere: Prentsa irakurtzea, estimulazio kognitiboa, psikomotrizitatea, estimulazio fisikoa, tertuliak, paseoak, eskulanak, jolasak, txangoak, musika animazioa, ospakizunak, belaunaldi arteko programak eta komunitateko jaiak.

Zentroak egiten dituen irteeretan, lantalde profesionalaren parte hartzea beharrezkoa bada, zentroa itxiko da.

## 4. ARRETA EMATEN ZAIEN PERTSONEN PROFILA.

1. 65 urtetik gorako pertsonak, eskaeraren dataren aurretik urtebetez gutxienez, etengabe, Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta daudenak, etxean eta beren inguruan bizitzen jarraitzeko babes baliabide bat behar dutenean. Egoera bereziak, adibidez familiako txandaketa, baloratu ahal dira. Puntuazio bera badaukate, Zuian bizi diren pertsonei lehentasuna emango zaie.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

2. Eguneko arretarako landa zentroen arretarako lehentasuna daukate.

a) Bakarrik bizi diren adineko pertsonak edo ahultasun egoeran dauden beste adineko pertsona batzuekin bizi direnak.
b) Familiako beste kide batzuekin bizi diren pertsonak, ahaideei zaintza eta konpainia lanetan lagundu behar zaienean.
c) Adineko pertsonak, autonomia gradu aldagarriarekin, EBJak (eguneroko bizitzako jarduerak) egiteko autonomiatik hasita, jarduera horietakoren batean zailtasunen bat izateraino, egoera fisiko edota psikikoa oso narriatuta ez badago.
d) Adineko pertsonak, beren narriaduragatik edota gizarte isolamenduagatik laguntza eta trebezia sozialak behar badituzte beren gizarte harremanak, integrazioa eta gizarteko parte hartzea mantentzeko, hobetzeko edota areagotzeko.

3. Zerbitzu hauen arreta eremutik kanpo geratzen dira ezintasun maila handia daukaten eta baliabide intentsiboagoak behar dituzten pertsonak, eta bizikidetza zailtzen duten jokabide nahasmenduak dauzkaten pertsonak.

## 5. SARTZEKO BETEKIZUNAK.

1. Erabiltzaileak modu librean eta berak bakarrik adierazi behar du Eguneko Arretarako Landa Zentroan sartu nahi duela. Egoera berezietan, bere borondatearen adierazpen hori bere legezko ordezkaritza daukan pertsonak egin dezake haren izenean eta haren ordez, baldin eta erabiltzailea adierazpen hau egiteko legez ezinduta badago.

Pertsonak ez badu formalki esleituta ordezkaritza bat aurreko paragrafoaren baldintzetan, egitatezko zaintza betetzen dutenek aurkeztutako eskaerak onartu ahal izango dira, Kode Zibilean xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Erakunde honetan pertsonak onartzeko irizpideak, une horretan indarrean dagoen eta GOFEk horretarako ezarri duen araudiaren arabera zehaztuko dira.

3. Eguneko Arretarako Landa Zentroaren erabiltzaile izateko, betekizun hauek bete behar dira:
- 65 urte edukitzea, gutxienez.
- Benetako egoitza Araban edukitzea eta eskaeraren dataren aurretik urtebetez etengabe erroldatuta egon izana bertako udalerrietakoren batean. Dependentzia moderatua (1. Gradua) aurkezten duten kasuek ez dute Araban epe zehatz batean erroldatuta egotearen baldintza bete beharrik.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizarte Esku Hartzearen Arloko Balorazio Batzordeak eskaeraren aldeko txostena egitea.
- Salbuespen gisa, familiako txandaketan bizi diren adineko pertsonei plaza emateko aukera baloratu ahalko da.

## 6. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK ETA BAREMOAK.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Balorazio Batzordea da eskaerak baloratzearen eta erabiltzaile berriak sartzeko lehentasun ordena zehaztearen arduraduna.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

Erabiltzaile berrien eskaerak baloratzea eta sartzeko lehentasun ordena zehaztea aipatutako batzordearen eginkizuna dira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Batzordeak onartutako irizpide eta baremoak aplikatuz. Irizpide eta baremo horien artean honelako zentro batean sartzeko eskaera egiten duten pertsonen inguruabarrak, egoera (pertsonala, familiakoa, soziala, ekonomikoa eta osasunekoa), etxebizitzaren egoera eta abarrekoak daude, baliabidearen egokitasuna, lehentasun ordena eta pertsonen premiak zehazteko neurtzen direnak.

## 7. ONARPEN SISTEMAK, EGOKITZE ALDIA, BAJAK, AUSENTZIAK ETA ZERBITZUA AMAITZEA.

### A. Onarpenak.

Erabiltzaile guztiek proba aldi bat gainditu behar dute. Aldi honen iraupena horretarako sortu den Balorazio Batzordeak erabakiko du.

Eguneko Arretarako Landa Zentroen erabiltzaileak egoera hauetan egon daitezke:

a) Denboraldi jakin baterako altan
b) Denboraldi mugagabean altan

Erabiltzaile bakoitzarekin, edo haren legezko ordezkariarekin, kontratu bat egingo da. Kontratuaren edukia barne araubideko erregelamenduaren araberakoa izango da.

### B. Egokitze aldia

Eguneko arretarako landa zentro bat erabiltzen duten pertsonak, egonaldiaren lehenengo hilabeteetan, zentroaren ezaugarriei eta funtzionamenduari egokitu behar zaizkie. Ingurune fisiko eta sozialean integratu ahal izateko behar duten laguntza tekniko eta pertsonala jasoko dute.

### C. Bajak

Adineko pertsonen eguneko arretarako landa zentro bateko erabiltzaile izaera arrazoi hauetakoren bat dela bide gal daiteke:

a) Norberak eskatuta.
b) Beste udalerri batera bizitzera joatea.
c) Heriotza.
d) Urtean berrogeita bost egun baino gehiagoan arrazoirik eman gabe zentroan ez egotea.
e) Baliabidea onartu zitzaionetik egoera aldatu zaiolako: jarduerak egiteko ezintasuna, ihes egiteko saiakerak, bere buruaren aurkako edo besteen aurkako erasokortasuna, narriadura fisiko garrantzitsua, dauden baliabideekin arreta egokia eskaintzea galarazten duena, zentroaren funtzionamendua edo ohiko bizikidetza asaldatzen dituzten jokabide nahasmenduak etab.
f) Zentroaren erabiltzaile izaera behin betiko kentzeko zehapena ezartzea. Horretarako arrazoia izango da, besteak beste, zentroaren dinamika orokorra larriki oztopatzen duten portaerako nahasmenduak.
g) Ebazpenean finkatutako zerbitzuaren iraupena amaitzea.
h) Zerbitzua emateko kontuan izan behar diren datu edota agiriak ezkutatzea edo faltsutzea.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

**D. Ausentziak**

Erabiltzaileen gizarte eta familia integrazioa erraztearren, erabiltzaileak 5 egun osoz edo gehiagoz jarraian zentroetatik kanpo egoten direnean – beti ere zerbitzua funtzionamenduan dagoen egunen barrukoak badira - (gehienez ere 45 egun urtean), esleituta daukaten prezioaren ehuneko 60 aplikatuko zaie adierazitako aldian eta toki erreserba moduan. Urtean 45 egun baino gehiago huts eginez gero, salbuespen partziala bertan behera geratuko da eta 46. egunetik aurrera esleitutako prezio osoa ordaindu beharko da atzera ere.

Erabiltzaileren bat ospitaleratzen bada, eta ospitaleratzeak 7 egun jarraian edo gehiago irauten badu, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa honakoa izango da: ospitaleratze-aldiaren lehenengo egunetik azkeneko egunera arte, ehuneko 90. Salbuespena izango da, ospitaleratzearen iraupena lehenengo egunetik kontatzen hasi eta 6 hilabete baino gehiagokoa bada. Epe hori gainditzen bada, zerbitzua bertan behera utziko da.

## 8. EMATEN DIREN ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK.

Eguneko arretarako landa zentroetan ematen diren zerbitzuetako bakoitzagatik ordaindu behar den dirua "Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak aplikatzearen araudian" arautzen da. Araudi hori urtero eguneratzen da.

Eguneko Arretarako Landa Zentroan egoteagatik ordaintzen den prezio publikoan ez dira honelako zerbitzuak sartzen:

- Kanpoko telefonoa (larrialdiak izan ezik).
- Laguntzarako tresna batzuk (kuxinak, babes elementuak etab)
- Garbitasun pertsonalerako tresnak
- Arauz ezarrita ez daudenak eta behar bezala jakinarazten direnak.

## 9. EMATEN DIREN ZERBITZUAK KOBRATZEKO SISTEMA.

Zerbitzuak emateagatik kasu bakoitzean ezarritako prezio publikoen ordainketa hilero egingo da, ordainagiri egokiaren arabera.

Ordainketa banku helbideratzearen bidez egingo da, Gizarte Ongizateko Foru Erakundeari jakinarazten zaion kontuan.

## 10. IRTEERA ARAUBIDEA ETA BISITALDIEN ORDUTEGIA.

Zentroa lanegun guztietan egongo da irekita, 12:00etatik 18: 00etara. Asteburuetan eta jaiegun izateko proposatzen diren egunetan itxiko da, udalak urtero onartzen duen egutegiaren arabera, erabiltzaileei eta beraien ahaideei jakitera emango zaiena.

Erabiltzaileak, erabiltzaile izate hutsagatik, zentroan programatutako jardueretan parte hartzeko eskubidea dauka. Arrazoiren batengatik zentrotik irten behar badu irten ahalko da, baldin eta horrek zentroaren dinamika ez badu oztopatzen eta aldez aurretik lantalde profesionalari jakinarazten bazaio. Erabiltzaileak, arrazoiren batengatik, ezin badu bakarrik irten, zentroko langileek, ahaideek edo erabiltzailearekin harremana dutela frogatzen duten boluntarioek lagunduta irten ahalko du.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Zentroak ematen dituen zerbitzuetako batera edo guztietara egun batez edo gehiagoz huts egingo badu, zentroko langileei edota gizarte langileari jakinarazi beharko die.

Ahaideen edo lagunen bisitaldiak zentroko langileei jakinarazi beharko zaizkie aldez aurretik, inguruabar berezietan izan ezik, programatutako jarduerak zentroaren dinamikan behar bezala txertatzeko.

## 11. PARTE HARTZEKO BIDEAK.

Zentroetako parte hartzea faktore garrantzitsua da, eguneroko bizitzan eta zentroaren martxa orokorrean oso eragin positiboa duena.

Erabiltzaileak eguneko arretarako landa zentroaren kudeaketan zuzenean parte har dezake, lantalde profesionalari edota gizarte langileari iritziak edo iradokizunak adieraziz antolaketari buruz, funtzionamenduari buruz eta jardunbide profesionalei buruz, zerbitzuaren kalitatean edo bere eskubideetan zuzenean edo zeharka eragina duten gaietan.

Zentroaren dinamika soziokulturalean parte hartzea boluntarioa, erabiltzaileei egokitua eta beraien proposamenei irekia izango da. Ahal den neurrian beraien eskaerei erantzungo zaie.

Erabiltzaileekin kontsultatuko dira beraiengan zuzenean eragiten duten erabaki guztiak. Erreferentziako ahaideari ere kontsultatuko zaio, hala eskatzen bada edo egoki irizten bazaio.

## 12. ERREKLAMAZIOA EGITEKO PROZEDURA. KEXA ETA IRADOKIZUNEN ARAUBIDEA.

Erabiltzaileak, edo berak horretarako izendatzen duen konfiantzazko pertsonaren batek, iradokizun, erreklamazio edo kexaren bat egin nahi badu, zuzenean edota erreklamazio orri baten bidez egin ahalko du. Erreklamazio orria gizarte langileari eskatu ahal dio. Konfidentzialtasuna uneoro errespetatuko da.

Kexak jaso eta formalki izapidetu behar dituen pertsona zentroko arduraduna da, hau da, gizarte langilea.

Erabiltzaileak kexa idazteko zailtasunik edukiz gero, aholkua eta laguntza eskainiko dizkio gizarte langileak, eta eskaera guztiak izapidetu eta banan-banan erantzungo die.

Gainera iradokizunentzako gutunontzi bat dago zentroan. Bertan sar daitezke iradokizunak, eta konfidentzialtasuna uneoro ziurtatuko da.

## 13. ERABILTZAILEEN ETA LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

Erabiltzaileen eta langileen eskubide eta betebeharrak indarrean dagoen abenduaren 5eko 12/2008 Legean, gizarte zerbitzuenean, araututa daude.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Langileek legeriatik, hitzarmen kolektiboetatik edo enplegu akordioetatik eratortzen diren betebehar guztiak bete behar dituzte.

***Erabiltzaileak***

a) Eskubideak:

➢ **Duintasuna:** Pertsona guztiak erabateko errespetuz, zuzentasunez eta ulerkortasunez tratatu behar dira, modu pertsonalizatu eta banakatuan. Bakoitzaren nahiak, erlijio edo kultura faktoreak, eta egoera fisiko edo psikikoak kontuan izan beharko dira. Hori guztia segurtasun eta higiene baldintzarik onenetan egingo da, arrazoizko epeetan.
➢ **Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna:** Dagokien informazio pertsonal osoan du eragina, bai pertsona diren aldetik daukaten intimitatean, bai espedientean edo beraiei pertsonalki dagokien edozein agiritan ageri diren datuen tratamenduan.
➢ **Beharrizanen ebaluazioa edukitzea:** Langileek erabiltzaileen beharrizanen ebaluazio profesionala egin behar dute, erabiltzailearen beraren deskribapena, laguntzen sare naturalaren datuak eta beste zerbitzuetan egon litezkeen aurretiazko informazioak kontuan izanik. Ebaluazio horren emaitzak pertsona bakoitzari jakinaraziko zaizkio. Prestazioen eskaera onartzen ez bada, erreklamazio bideen berri emango zaio.
➢ **Banako arreta plana:** Ebaluaziotik abiatuta, pertsona bakoitzak banako arreta plana edukiko du, bere premiei egokitua. Erraz ulertzeko moduan idatziko da eta erabiltzaileei eta haien zaintzaileei eman eta azalduko zaie. Planean prestazioak, ematen dituzten pertsonak, koordinazioaren arduraduna den langilea eta larrialdietarako kontaktu telefono bat azalduko dira. Ebaluazioa berrikusiko den data adieraziko da.
➢ **Autonomia:** Pertsona guztiek modu independentean jarduteko eta pentsatzeko eskubidea daukate, kalkulatutako arrisku maila bat ere beren gain hartuz. Beren bizi estiloa eta parte hartu nahi duten jarduera eta zerbitzuak hauta ditzake, nahi dituzten erabakiak hartzen. Horretarako, informazio egoki eta ulergarria eduki behar dute.
➢ **Informazioa:** Erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuetan sartzeko behar den informazio guztia edukitzeko eskubidea daukate. Informazio hori modu argi, xehe eta ulergarrian emango zaie.

b) Betebeharrak:

➢ **Informazioa zabaltzea:** Beraien beharrizanak ebaluatzeko eta, beharrezkoa bada, arretako banako plana egiteko behar den informazioa, egiazkoa eta zehatza, jakinaraziko dute.
➢ **Barne araubidea betetzea:** Erabiltzen duten zerbitzu edo zentroko antolaketa eta funtzionamenduko barne arauak ezagutu eta bete behar dituzte.
➢ **Bizikidetzako arauak betetzea:** Gainerako pertsonen eskubideak errespetatu behar dituzte; zehazki, erabiltzaileen eta langileen pribatutasuna eta duintasuna. Informaziorik eskuratu badute, konfidentzialtasuna errespetatuko dute.
➢ **Instalazioak errespetatzea:** Zentroetako altzariak, ondasunak eta instalazioak errespetatu eta behar bezala erabiliko dira.
➢ **Hitzorduak errespetatzea:** Zerbitzua jasotzeko ezarritako egunak eta orduak errespetatuko dira. Arrazoiren batengatik ezin badute hitzordura joan, aldez aurretik jakinarazi beharko dute.

***Langileak***

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

a) Eskubideak:

- **Duintasuna:** Zerbitzuko arduradunengandik, gainerako langileengandik, eta erabiltzaileengandik eta beraiei lagun egiten dieten pertsonengandik erabateko errespetua, ulerkortasuna eta zuzentasuna jaso behar dute tratuan.
- **Lanekoak:** Une bakoitzean indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkien eskubide guztiak bermatuko zaizkie.
- **Prestakuntza:** Zerbitzu edo zentro berri bati errazago egokitzeko, hasierako prestakuntza eta orientazioa jasotzeko eskubidea daukate. Era berean, laneko prestakuntza jarraitua jasotzeko eskubidea daukate. Beraz, zerbitzua esleitzen zaion enpresak prestakuntza plan eta birziklatze neurri egokiak ezarri behar ditu.
- **Parte hartzea:** Beren eginkizunak betetzean zuzenean eragiten dieten kontuetan, eta Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako kontsulta eta parte hartze organoetan, baita sor litezkeen beste organo batzuetan ere, parte hartzeko eskubidea daukate. Era berean, zentro eta zerbitzuen funtzionamenduari buruzko salaketak egin ditzakete. Horrek ikuskapena egin araz dezake. Ikuskapena izapidetzean beraiei kontsultatu beharko zaie. Zerbitzuen aldiroko ebaluazio prozesuetan parte hartuko dute.
- **Kexak eta iradokizunak:** Erabiltzaileentzat araututako baldintzetan, kexak eta iradokizunak aurkezteko prozedurak erabili ahalko dituzte, zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko eta akatsak zuzentzeko.

- **Kalitatea:** Zerbitzuak kalitate irizpideekin ematen dituztela bermatzeko behar diren bitartekoak edukitzea. Horretarako, administrazioari edo zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeei beren funtzioak betetzeko eskatu ahal diete.

**b)** Betebeharrak:

- **Lanekoak:** Legeriatik, hitzarmen kolektiboetatik edo enplegu akordioetatik eratortzen diren betebehar guztiak bete behar dituzte.
- **Komunikazio betebeharra:** Beren iritziz eskubideren bat urratzea ekar dezaketen egoerak agintari eskudunei jakinaraziko dizkiete.
- **Gizarte Zerbitzuen araudia eta erregelamendua betetzea:** Gizarte Zerbitzuen legeria eta arau orokorrak ezagutu eta bete behar dituzte, baita lan egiten duten zerbitzua edo zentroa arautzen duten arauak ere.
- **Bizikidetzako arauak betetzea:** Beren zentroetan, eta beren jarduerari lotuta dagoen beste edozein zentrotan, bizikidetzako eta elkarrenganako errespetuko arauak beteko dituzte.
- **Pertsonak errespetatzea:** Gainerako langileen eta erabiltzaileen eskubide guztiak errespetatu behar dituzte, inolako bazterketarik gabe, batez ere pribatutasuna eta duintasuna, eta bereziki eskuratzen duten informazio pertsonalaren konfidentzialtasuna. Erabiltzaileek edo beraien legezko ordezkariek hartzen dituzten erabakiak errespetatuko dituzte, eta jasoko dituzten zerbitzu moten definizioan parte hartzea erraztuko diete. Erabiltzaile bat beste zerbitzu batera bideratzea beharrezkoa bada, zentroaren arduradunari proposamena egin beharko diote, erabiltzailearentzako baldintzarik mesedegarrienak aintzat hartuta eta esku hartzeari jarraipena eman ahal izateko ahalegina eginez.
- **Instalazioak errespetatzea:** Zentro eta zerbitzuetako ondasunak eta instalazioak errespetatu eta behar bezala erabiliko dituzte.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

- **Irregulartasunen jakinarazpena:** Atzematen dituzten irregulartasun edo anomaliak jakinarazi beharko dizkiete zentroko arduradunei. Beharrezkotzat jotzen badute, beraien berri eman ahalko diete beren arduradunei eta ikuskapen gaietan eskumena daukan unitateari.
- **Data eta epeak errespetatzea:** Erabiltzaileentzat ezarritako hitzorduak errespetatu behar dituzte. Ezin badira egin, interesdunei aldez aurretik jakinarazi beharko zaie. Esku hartzeko banako planetan ezarritako epeak errespetatu behar dituzte.

## 14. EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN BARNE FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK.

### A. *Orokorrak.*

- Barne araubideko erregelamendu honen edukia ezagutu eta betetzen saiatu behar da.
- Zentroaren barruan eta zentroaren jarduerekin zerikusia duen beste edozein lekutan bizikidetzako, higieneko eta elkarrenganako errespetuko arauak errespetatzen saiatu behar da, giro atsegina sortzeko.
- Zentroetan eskaintzen diren instalazioak eta zerbitzuak behar bezala erabiliko dira.
- Aurkitzen den edozein objektu zentroko langileei edo gizarte langileari eman behar zaie.
- Zentrora objektu baliotsurik eta diru askorik ez eramatea gomendatzen da.
- Ezarritako ordutegiak errespetatuko dira. Aldatzen badira, aldez aurretik jakinaraziko da.
- Ahoz edo idatziz jakinarazten diren arauak eta oharrak kontuan izango dira, eta horiek betetzen saiatu behar da, zentroak ondo funtzionatzeko.

### B. *Otorduak eta jantokia.*

- Janaria jantokian emango da, finkatutako ordutegietan.
- Dieta bereziak jaso ahal dira, horrelakoak gomendatzen dituen txosten medikoa aurkezten bada. Menua iragarki oholean jarriko da.
- Ezin da jantokian janaririk sartu edo atera, ezta tresnarik ere (hau da, mahai tresnak, edalontziak, platerak, ahozapiak eta abar).
- Begirunez jaten saiatu behar da, besteentzat desatsegina den ezer egin gabe.

### C. **Arropa eta garbiketa pertsonala.**

- Zentroak ikuztegi zerbitzua onartuta daukaten pertsonen arropa bakarrik garbituko du.
- Pertsona bakoitzak garbiketa pertsonaleko tresnak edukiko ditu zentroan, baita ordezko arropa sorta bat ere.
- Ordezko arropa markatzea komeni da, inor ez dadin nahastu.
- Itxura pertsonal txukuna izatea erabiltzailearen eta inguruan bizi diren guztien ongizaterako faktore bat da. Horregatik, erabiltzailea behar bezala janztea eta garbitzea gomendatzen dugu, noski, betiere bere gustu eta ohiturak errespetatuz. Arropa eta oinetakoak ahalik eta erosoen izan behar dira.
- Zentroan bainatzeko zerbitzua onartuta dutenek bainua erabateko intimitatean hartuko dute, horretarako finkatuta dagoen ordutegian. Erabiltzaileak bainatzeko zailtasunak baditu, zentroko langileek lagunduko diote.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

**D.** Segurtasuna eta osasun publikoa.

Zentroko instalazio guztietan erretzea debekatuta dago.

**E.** Osasun-arretari buruz.

- Beharrezkoa baldin bada, gutxienez urtean behin, erabiltzaile bakoitzaren fitxak egingo dira, osasun-arretarako dituen beharrak zehazteko. Erabiltzaileek, edo, bestela, beraien familiek, botiketan dituzten aldaketak edo egiten diren mediku-diagnostiko berriak jakinaraziko dizkiote zentroari, behar bezalako arreta pertsonala bermatzeko.
- Zentroko langileek erabiltzaileen osasunarekin lotutako alderdien jarraipena eta azterketa egiteko ardura dute (dietak, inkontinentziak, zarakarrak, memoria-galerak, etab.). Beharrezkoa bada, erreferentziazko pertsonari horren berri emango diote, eta, halakorik ez badago, dagokion ekipo profesionalari.
- Pertsona bakoitzak du bere medikazioa hartzeko ardura. Zentroko langileek gainbegiratu egingo dute erabiltzaileak, medikuek agindutako aho-bidezko medikazioa, behar bezala hartzen duela.
Aho-bidezko medikazioa emateko ardura izango dute, soilik erabiltzailea ez bada gai berak bakarrik hartzeko.
- Pertsona bakoitzak du medikamentu injektagarriak hartzeko ardura. Laguntzarik behar badu, familien edo familiek izendatutako pertsonen ardura izango da laguntza ematea.
- Zentroko langileek inkontinentziarako gailuak jarriko dituzte, horretarako beharrik badago
- Apposituak aldatzeko ardura ere izango dute, aldaketa egiteko osasunaren eremuko langile profesionalen eskuhartzerik behar ez denean.

**F.- Osasun-emergentzia egoeretan arreta ematea.**

- Zentroko langileek baloratu egingo dute emergentzia-egoeran dauden pertsonen egoera, eta, anbulantzia behar badute, familiari emango diote abisua. Anbulantzia iristen denean, osasun-langileei erabiltzailearen txostena emango diete, eta ez da beharrezkoa izango laguntzea.
- Anbulantziarik behar ez bada, familiari jakinaraziko zaio, erabiltzailea bere bizilekura eramateko eta dagokion neurriak hartzeko.
- Erabiltzaileak sukarra, delirioak, orientazioa galtzea, etab. bezalako s intomak baditu, familiari jakinaraziko zaio, ospitalera eraman beharra dagoen edo ez baloratu dezan. Familiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa bada, zentroko langileek egingo dute balorazioa.
- Erabiltzailea konorterik gabe badago, edo ez badie kanpo-estimuluei erantzuten:
  - 112ra deitu eta bertakoen aginduak jarraitu.
  - Erabiltzailea besteengandik urrundu, eta gainontzekoak lasaitu.

**G.- Langileekiko harremanak.**

- Zentroko langileak erabiltzailearen esanetara daude, jasotzen duen arreta kalitate gorenekoa izan dadin.
- Edozein pertsonarengana jo daiteke, betiere adeitasunez eta errespetuz.
- Zentroko langileek zentro osoaren mesedetan eta erabiltzailearen mesedetan ematen dituzten jarraibideei kasu egingo zaie.
- Eguneko Arretarako Landa Zentroko langileek laguntza behar duten pertsonei lagunduko diete. Gainera, salbuespenetan, erabiltzaileei ahaide edo lagunek eta boluntarioek lagundu ahalko

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

diete, baldin eta zentroko arduradunarekin (gizarte langilearekin alegia) edo zentroko langileekin hala adostu badute.

- Pertsona guztiek, zentroko erabiltzaile nahiz langile izan, tratuan erabateko errespetua, zuzentasuna eta ulerkortasuna, modu pertsonalizatuan, jasotzeko eskubidea daukate.

**H.- Arau-hausteak eta zigorrak.**

- Arau-hauste arinak:
  - Bizikidetza eta elkarrekiko errespetuaren arauak haustea, zentroan ondoeza sortuz.
  - Instalazioak modu desegokian erabiltzea.
- Arau-hauste larriak:
- Beste erabiltzaile batzuekin eta/edo zentroko langileekin errespeturik gabeko jarrera larriak erakustea.
- Arau hauste arinak behin eta berriz egitea. Behin eta berriz egiten dela iritziko da, arau-haustearen ardura duen pertsonak, urtebetean, larritasun bereko bi arau-hauste edo gehiago egiten baditu.
- Zentroko edo bertako langileen edo erabiltzaileen jabetzako ondasunak lapurtzea.
- Zigorrak:
  - Arau-hauste arinak ahozko eta/edo idatzizko ohartarazpenen bidez zigortuko dira.
  - Arau-hauste larriak aldi baterako (edo, beharrezkoa bada, behin betirako) zentroko erabiltzaile-izaera bertan behera uztearekin zigortuko dira.
  - Zigorrak ezartzeko eskumena:

Zigorrak ezartzeko eskumena honakoek izango dute:

1.- Erabiltzaileari ahozko eta/edo idatzizko ohartarazpena, zentroko arduradunak;

2.- Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen zuzendaritza-gerentziak, gizarte-langileak, Zuiako udaleko alkate-udalburuak eta bertako zinegotzi batek osatutako Batzorde bat, arau-hauste larriengatiko zigorra ezartzeko.

**I.- Familiekiko harremanak.**

- Familiekiko harremana behar bezain ohikoa eta arina izan behar da, batez ere erabiltzaile berria zentrora egokitzen ari den aldian.
- Erabiltzailea ez bada Eguneko Arretarako Landa Zentrora joango, ahalik eta azkarren jakinarazi behar da, ausentziaren berri jakiteko eta garraio zerbitzua (egotekotan) ez dadin haren bila joan.

**J.- Garraioaren ordutegia.**

- Egokitutako garraio zerbitzua onartuta izanez gero, Eguneko Arretarako Landa Zentroan sartu baino lehen egiten den elkarrizketan garraioari buruzko datuak jakinaraziko dira, hala nola ordutegiak, geltokiak etab.
- Garraio zerbitzua egun jakin batzuetan ez bada erabiliko, beharrezkoa eta premiazkoa da zentroari edo gizarte langileari jakinaraztea, gainerako erabiltzaileen ordutegiak ez kaltetzeko. Ezin bada hori egin, salbuespen gisa, ibilgailuaren gidariari jakinarazi ahalko zaio. Zentrora ez joatearen arrazoiak azaltzea komeni da.

**AYUNTAMIENTO DE ZUIA**
*MURGIA (ALAVA)*

**ZUIAKO UDALA**
*MURGIA (ARABA)*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

**REGLAMENTO DE RÉGIMEN INTERNO DEL CENTRO RURAL DE ATENCIÓN DIURNA DE ZUIA**

## 1. AMBITO DE APLICACION

## DEFINICIÓN Y OBJETIVOS

Los Centros Rurales de Atención Diurna son centros de carácter integrador, preventivo, asistencial y comunitario, que prestan diferentes servicios durante el día, de apoyo en las actividades de la vida diaria y de ocio y tiempo libre, a personas mayores, que con un grado de autonomía variable, mantienen una estructura familiar o una red de apoyos informales, que les permiten continuar residiendo en su domicilio con una aceptable calidad de vida.

Son objetivos del Centro los siguientes:

1. Favorecer la permanencia de las personas mayores en su entorno social, mediante la provisión de los cuidados necesarios en su propia comunidad.
